

Zoriontasuna eta osotasun pertsonala

Zorioneko izateko nahia pertsonak mugiarazten dituen bultzada da. Goizero, arraza, herri eta kultura guztietako pertsonak, altxatu, egun berriari ekin eta, era batera edo bestera zoriontasunaren bila aritzen dira. Jakinaren gainean ala ez, zoriontasun-nahia geure izatasunaren barru-barruan sustraiturik dago.

Zoriontasunak, orokorrean, zera adierazten du: norbere buruarekin ongi-izatea (gustura edo harmonian egotea), bizitza atseginez bizitzea...

Bizitzeko baliozkoa, duina dela uste duen hartan osotasuna jadesten duena zorioneko dela esan daiteke.

Zoriontasuna, azken batean, *osotasun pertsonala* erdiestea da.

Asko eta asko axolagabe, galderarik egin gabe, sakondu gabe... bizi dela badirudi ere, gehienok helburuak jartzen ditugu eta "bizitzarako egitasmoa" egiten dugu, zehaztasun handirik gabe eta formulatu gabe bada ere.

Zertan datza osotasun pertsonala delakoa? Azken batean, eraturako egitasmoarekin, jarritako helburuekin eta gure bizitzarako egokitzat hartutako balioekin koherentzian bizitzean datza.

Egia da sarritan kanpotik datozkigula zoriona aurkitzeko irizpideak, hau da, publizitateak, komunikabideek, giroak... ezartzen dizkigu irizpide horiek. Beste batzuek erabakitzen dute non eta zertan datzan zoriona. Horregatik, ezinbestekoa da pertsonalizatze eta barneratze prozesua egitea, guk geuk antzeman dezagun zertan ahalegindu behar dugun benetako zoriona erdiesteko.

Zorionari buruzko askotariko irizpideak

Denok ez dugu zoriona gauza beretan bilatzen. Bake eta lasaitasunean bilatzen dute batzuek, jarduera eta asalduran besteek eta bada zorion hori arrakasta eta txaloetan aurkitzen duenik ere...

Gizakiok hainbat bidetatik jotzen dugu zorioneko izateko. Esate baterako:

- Denok dakigu osasuna oso garrantzitsua dela zorioneko izateko. Gero eta pertsona gehiago arduratzen da osasunaz eta horregatik forman mantentzen da eta gorputza zaintzen du.
- Diruan bilatzen du zoriona askok eta askok. Ez zaie burutik ere pasatzen diru ugari gabe, gastatu eta kontsumitu gabe benetako zorionik izan daitekeenik.
- Berehalako gozamina bilatzea, topera gozatzea, dibertitzea, ondo jatea, "bapo bizitzea" omen da, beste batzuentzat, zorioneko izateko bide errealista bakarra.
- Bada bizitzari asko eskatzen ez dionik ere. Azken batean, dena da iragankorra. Gurari eta zerumuga handirik gabe, unean-unean ahalik eta ondoen bizitzean datza.
- Balio "espiritualen" bizipenean bilatzen dute batzuek zoriontasuna: hartu-eman atseginak besteekin, familian, adiskidetasunean... Mendi eta zelaiak, izadiaren

edertasun isila... dastatu beharra sentitzen du askok... Musika atsegina entzutearen gozamena irrikatzen duenik ere bada...

- Eta denok ezagutzen ditugu, jakina, zoriontasuna besteen aldeko eskaintza eta zerbitzuan aurkitzen dutenak, nahiz eta horrek hainbat gauzari uko egitea eta bizimodu sakrifikatu eta neurritsua eskatu.

Zaila da zoriontasun betea lortzea. Nolabaiteko atsekabeen bizi gara, esate baterako, lortutako helburu batek beste handiago bat eskatzen du, edo irrikatzen genuen gozamen hori ez da espero genuena bezain handia izan...

Normalean, zoriontasun "zatiak" lortzen ditugu.

Erlijioa, mehatxua zoriontasunerako?

Orokorrean, onartuta dago erlijioek zoriontasuna agintzen dutela. Bina, zer, nola eta noiz eskaintzen dute zoriontasun hori?

- Askok uste du erlijioak eskaintzen digun zoriontasuna, ez da mundu honetakoa, mundu honetatik harago dago eta, ondorioz, ez da nahiko baloratzen hemengoa, oraingoa. "Igarotze laburra" aipatzen digu, "gau txarra, ostatu eskasean", "negarrezko harana", "eragozpenak etsipenez jasatea", "bizitza honetako ondoeza eta datorrenaren ontasuna"...
- Ondorioz, makina bat lagunek zera pentsatzen du: "Jainkoa? Beste bizitzaren bat baleko, ona litzateke aintzakotzat hartzea, baina bizitza honetarako, eguneroko bizitzarako, ez dut behar.

Beste alde batetik, beste askok zera uste du: geroko zoriontasuna "hemen irabazi" behar dela, asko ahalegindu ondoren eta horretarako uko egin behar zaiola, neurri batean askatasunari, gure pasioen garapenari, eta dogma eta arau moralak otzantasunez eta baldintzarik gabe onartu behar direla.

- Askoren ustez, hain zuzen ere, erlijioak gizakiaren hainbat alderdiren garapena murriztu egiten du.
- Batzuek bizipen erlijiosoa bertan behera utzi dute eta *askatasun-sentsazioa* esperimentatu dutela diote.